



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS DE LA
EXPERIENCIA
DE BIZKAIA**

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: CAMBIO SOCIAL Y EDUCACIÓN. EDUCACIÓN EN EL PAÍS VASCO.

Irakaslea/Profesor/a: Iraide Fernández Aragón

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

- Jakintzaren gizarteak bereizgarri duen hezkuntza testuingurua aztertzea da xedea.
- Fenomeno soziala dela kontuan hartuta, ikuspegi soziologikotik aztertuko dugu hezkuntza, gizarte aldaketaren, modernitatearen eta postmodernitatearen aurkezpen orokorretik abiatuta.
- Hortaz, ikuspegi historiko eta soziologikoarekin hurbilduko gara hezkuntzara, gai zehatzak garatzeko, hala nola sozializazio prozesuak eta eragileak, bai eta hezkuntzak ekonomiarekin, kulturarekin eta generoarekin duen harremana ere.
- Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza aztertuko dugu, euskal hezkuntza sistemako prozesu bereizgarriak aurkeztuz.
- Gaien garapena analisi kronologikoa eta edukien azterketa bateratzen saiatuko da, hartara hobeto ulertu ahal izateko zein diren hezkuntzaren arazoak, oro har, euskal hezkuntzarenak, bereziki, eta arazo horiek sortu dituzten eztabaidak.

Gaitasunak/Competencias

- Hezkuntzak gizartearen aurrerapen sozial, ekonomiko eta kulturalean duen zeregina aztertzea eta balioestea.
- Irakaskuntza sistemaren funtzioak aztertzea eta interpretatzea.
- Askotariko planteamendu teorikoak eta horien metodologiak kritikoki aztertzeke gaitasuna garatzea hezkuntzaren soziologiaren arloan.
- Hezkuntza sistemetan klase, genero eta etnia desberdintasunen artean dauden loturak aztertzeke gaitasuna

Edukiak/Contenidos

1. zatia. GIZARTEA

1. Begirada soziologikoa hezkuntzan
2. Gizartea eta gizarte aldaketa
3. Tradizioa eta modernitatea
4. Postmodernitatea eta egungo gizartea

2. zatia. HEZKUNTZA

5. Ikuspegi historikoa
6. Ikuspegi soziologikoa
7. Sozializazio prozesuak eta eragileak
8. Hezkuntza eta ekonomia
9. Hezkuntza eta kultura
10. Hezkuntza eta generoa

3. zatia. HEZKUNTZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

11. Hezkuntza formaleko politikak
12. Euskal hezkuntza sistema
13. Unibertsitatea Euskal Autonomia Erkidegoan
14. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren euskal sistema.

Metodologia/ Metodología

Irakasgai honetan hainbat metodologia erabiltzen dira. Irakasgaiaren garapenean azalpen eskolak, ikasleen talde lana eta ikasle bakoitzaren banakako lana txandakatuko dira.

Azalpen eskoletan irakasgaiaren ikasgai zerrenda osatzen duten gaiak biltzen dituen jakintzagaiaren kontzeptuzko edukiak aurkeztu eta azalduko dira.

Saio batzuetan ikasleek bakarka eta taldean landuko dituzte programako atalei dagozkien edukiak, ezinbestekoak direnak irakasgaiaren eduki teorikoan sakontzeko. Halaber, aztertutako problematika desberdinetara egokitutako idatzizko materiala, film bidezkoa eta dokumentu bidezkoa aztertuko dira.

Ebaluazio sistema/ Sistema de evaluación

Etengabeko ebaluazio sistema. Eskoletara bertaratzea oinarrizko eta ezinbesteko baldintza da irakasgaia gaitzeko. Gutxienez, ematen diren aurrez aurreko eskolen % 80ra joatea beharrezkoa da. Era berean, parte hartzea eta ikasgelan egindako lana baloratuko dira.

Bibliografia/Bibliografía básica

- BONAL, X. (1998). Sociología de la educación. Una aproximación a las corrientes contemporáneas. Barcelona: Paidós.
- BELTRÁN, J. & HERNÁNDEZ, F. (2011). Sociología de la Educación. Madrid: McGraw-Hill.
- CARBONELL, J. (1996). La escuela: entre la utopía y la realidad. Diez temas de Sociología de la Educación. Barcelona: Octaedro.
- FERNÁNDEZ ENGUITA, M. (1995). La escuela a examen. Un análisis sociológico para educadores y otras personas interesadas. Madrid: Pirámide.
- FERNANDEZ PALOMARES, F. (Ed.) (2003). Sociología de la educación. Madrid: Pearson Prentice-Hall.
- GUERRERO SERÓN, A. (1996). Manual de Sociología de la Educación. Madrid: Síntesis.
- JEREZ MIR, R (1990). Sociología de la educación. Guía didáctica y textos fundamentales. Madrid: Consejo de Universidades.
- TABERNER GUASP, J. (1999). Sociología y educación. Funciones del sistema educativo en sociedades modernas. Madrid: Tacnos.